

ESKOLA-BARATZEKO LANTEGIAK



Jarduera baratzean	
Hezkuntza-etapa	Lehen Hezkuntzako 4. maila
Aldez aurretiko jarduera ikastetxean (hautazkoa)	Material-bilketa, intsektuendako aterpe bat egiteko
Gidatutako jarduera baratzean barna	Bioaniztasuna baratzean
Ondoren ikastetxean egiteko jarduera	Intsektuen aterpeak ikastetxean paratzea

Bioaniztasuna baratzean

Helburuak

- Baratzean dauden bizitza-erak eta haien arteko harremanak ezagutzea.
- Ideia hau plazaratzea: baratzea gizakiok kudeatutako ekosistema da.

Iraupena

Aldez aurretiko jarduera ikastetxean (hautazkoa): 1 h

Jarduera baratzean: 2 h

Ondoren ikastetxean egiteko jarduera: 1 h

Garapena

- **Aldez aurretiko jarduera ikastetxean (hautazkoa)**

Materialak prestatzea intsektuendako aterpea egiteko

Ikasleei esanen diegu etxetik kartoi- edo egur-kutxak, kartoiak, makilak eta abar ekartzeko.

Irteera txiki bat eginen dugu ikastetxe ondoko berdegune batera, insektuendako aterpea egiterakoan betegarri gisa erabiltzen ahal ditugun materialen bila: makilak, hostoak, harritxoak, pinaburuak...

Baratzearen aurkezpena

Biribilean eseriko gara baratzearen barnean, lantegia eta gunea aurkezteko. Jakitera emanen dugu lantegia egitean ingurunea zaindu behar dugula, ez dugula landararik erauzi behar edo intsekturik hil.

Non gaude?

Baratze ekologiko komunitario batean gaude. Hau da, auzokide talde batek lantzen du, beraien artean antolatuta eta ados jarrita. Eta hori ingurumenarekin eta Lurraren zein pertsonen osasunarekin begirunez jokatuta egiten da. Ahalik eta gutxien kutsatzen saiatuta."

Zer egiten da hemen?, zertarako balio du baratze batek?

"Baratzea ekosistema bat da, pertsonak elikagaiak eskuratzeko baliatzen dutena.

Ez da, baina, elikagaien fabrika bat. Toki bat da, klima eta lurzoru jakin bat ditu, eta bertan hainbat izaki bizidun bizi eta erlazionatzen dira bai haien artean bai ingurumenarekin.

Behaketa baratzeke bioaniztasunari:

Baratzean makina bat izaki bizidun bizi da, eta hain zuzen ere, horiek ahalbidetzen dute laboreen garapena. Hurrengo jardueran taldeka arituko gara, baratze batean topa ditzakegun bizitzeko erak behatzeko.

Jarduera osagarrien atalean, mugimendu-dinamika bat proposatu da, ikasgela taldeetan banatzeko.

1. jarduera

Behin taldeak osaturik, bakoitzari fitxa bana emanen diegu, jarduera egin ahala bete dezaten. Fitxa bat atxikita doa baliabide gehigarrien atalean, **1. eranskinean**.

- **Bioaniztasuna identifikatzen**

Baratzean paseoan, taldeka, hiru bizitza-era identifikatuko dituzte. Bizidunen zein taldetakoak dira? (animaliak, landareak, onddoak...).

Denbora mugatua izanen dute horretarako (10'), eta gero topalekura itzuliko dira bateratze-lana modu ordenatuan egiteko.

Erraz egin al dute?, bizidun ugari al dago baratzean?

- **Laboreak aztertzea**

Baratzean barnako paseoan, taldeka, zenbatu beharko dute zenbat landare jangarri mota aurkitu dituzten (laboreak, ortuariak). Helburua ez da horiek ezagutzea baizik eta identifikatzea zenbat labore mota dauden une honetan baratzean.

Denbora mugatua izanen dute horretarako (10'), eta gero topalekura itzuliko dira bateratze-lana modu ordenatuan egiteko.

Jakitera emanen diegu ezen *“baratze ekologiko bati osasunez eusteko bide bat bioaniztasuna handitzea dela, labore ezberdin asko landatuta”*.

- **Intsektuak aztertzea**

Lupa bana emanen diogu talde bakoitzari, behaketa errazago egin dezaten (3. eta 4. jardueretan erabiliko dute).

Taldeak baratzean banatuko ditugu, bakoitzak baratze-zapalda bati edo eremu jakin bati behatzeko moduan.

Zenbatu beharko dute zenbat animalia edo intsektu mota aurkitu dituzten landareetan. Denbora mugatua izanen dute horretarako (5').

Behin hori bukatuta, topalekura itzuliko dira. Bateratze-lanean, talde bakoitzak gainerako ikaskideak gidatuko ditu jardueran egokitu zaien baratzeke gunean barna, zenbat animalia mota eta mota bakoitzeko zenbat ale topatu dituzten erakusteko.

Ezaguna al zaie horietakoren bat?, zein landaretan dago?

Intsektuak kaltegarriak al dira?, zer eginkizun dute baratzean?

“Intsektu horietako batzuk kaltegarriak dira laboreendako, jan egiten dituztelako; beste batzuek ez dituzte jaten eta bestelako eginkizunak dituzte, hala nola landareak hiltzen direnean haien hondakinak hautsi eta deskonposatzea; beste zenbaitek, aldiz, laboreen osasunari eusten laguntzen dute izurriteak eragiten dituzten intsektuak jaten dituztelako”.

- **Lurzoruaren bizitza aztertzea**

Lurzoruaren azalean topatzen ditugun bizidun guztiez gain, baratzea zaindu eta pozoirik botatzen ez badugu, lurzoruaren azpian izaki bizidun asko topatuko dugu landareekin elkarreraginean, eta horiek askotariko funtzioak betetzen dituzte, hala nola landareei elikatzen edo ez gaixotzen laguntzea. Berebiziko garrantzia dauka lurzoruaren bizitza zaintzeak, baratzea osasuntsu izateko.

Aurreko jardueran bezala, taldeak gunean barna banatuko dira.

Lurzoruaren azaleko bizitzari behatuko diote, 5' minutuz.

Aitzur txikiak lurra azalean aitzurtuko dute (10-20 cm), 5 minutuz lurzoru biziaren behatzeko, eta bertan topatzen dituzten animalia motak eta mota bakoitzeko aleak zenbatuko dituzte.

Behin hori bukatuta, topalekura itzuliko dira. Bateratze-lanean, talde bakoitzak gainerako ikaskideak gidatuko ditu jardueran egokitu zaien baratze gunean barna, zenbat animalia mota eta mota bakoitzeko zenbat ale topatu dituzten erakusteko. **Ezagutzen al duzu horietakoren bat?**

Ikusi ditugu, jada, lurzoru biziaren biztanle batzuk. Beste batzuk, mikroorganismoak, hala nola bakteriak edo onddoak, ezin ditugu begiez ikusi. Baina, jakin badakigu bertan daudela, landareekin elkarreraginean.

Pipitakietan: Animaliak lagun

Sarrera labur bat egingen dugu.

Baratzean, ikusi dugunez, landatzen ditugun laboreez gain, beste izaki bizidun asko bizi dira, beren artean elkarreraginean, betiere. Horietako batzuk besteek elikatzen dira eta lagungarri izaten ahal zaizkigu laboreei osasuntsu eusteko.

Mimikaz baliatuta, baratzerako onuragarri izaten ahal diren animalia batzuk deskribatuko ditugu. Jolasa zein animalia den asmatzean datza. Behin asmatuta, haren mugimendua imitatu beharko dute. (Animalien irudiak eraman ditzakegu, hurrei erakusteko).

Hona adibide batzuk jarraian:

Pipitaki-papataki...

- Hegan egiten duten animaliak, mokodunak, koloretako lumentzat jantziak eta intsektuak jaten dituztenak (txori batzuk, txolarrea edo amilotxa, kasu)

- 4 hankadun animaliak, gorputza baino buztan luzeagoa dutenak. Berdeak edo arreak izan ohi dira, eta zintak dituzte luzetara. Eguzkitan geldirik ikus daitezke, baina ikaratz gero korrika ezkututzen dira. Intsektuak eta armiarmak jaten dituzte. (Sugandilak).

- Oro har berdeak dira, begi handiak dituzte, jausketa mugitzen dira, eta euliak eta beste intsektu batzuk jaten dituzte mingaina ateraz atzemanda. (Apoak)

*Badira, halaber, bizi-zikloaren uneren batean beste intsektuez elikatzen diren intsektuak, zeinak, berriz, baratze guneetako landareez elikatzen diren **Ezagutzen al duzu horrelakoren bat?***

Adibidetzat, marigorringoa jarriko dugu, landare-zorriez elikatzen baita. Landare-zorriak intsektu txikiak dira eta baratze guneetako landare asko dituzte gustuko jateko. Irudiak erakutsiko dizkiegu.

Intsektuendako aterpe bat eraikitzea

Jardueraren sarrera gisara, paseo bat emanen dugu taldean baratzean barna, loreak dituzten landare batzuk identifikatzeko eta intsektuen aterpe izan daitezkeen egitura batzuk ikusi eta nola eginda dauden ohartzeko: Egitura, bizilekuak, material betegarriak, babes beste animalien aurrean...

Intsektu "laguntzaileak" baratzean gera daitezzen, jaten eman behar diegu. Jaten dituzten intsektuez gain, loreen polena eta nektarra behar dituzte. Hori ikusita, lore-landareak jarriko ditugu barazkien ondoan. (Ikusi baratzean bertan).

Toki bat ere behar dute, hotz, euri edo berotik babesteko eta arrautzak jarri eta ugaltzeko.

Egin diezaiegun aterpe bat, etxetxo bat.

Talde bakoitzak erabili behar duten egitura hautatuko du (bizilekuak, materialak...).

Ikastetxean aurretiko jarduera egin badugu, materialak edukiko dituzte. Bestela, laguntzen dien pertsonak emanen dizkie materialak.

Talde bakoitzak, elkarlanean, intsektuendako aterpe bat eraikiko du. Arina eta erabilerraza izan behar du, ikastetxera eraman ahal izateko modukoa. Bertan, kokapen egokia bilatuko diote.

Bukatu eta gero, irakasleen laguntzaz babes-sare bat jarriko diote harrapakariengandik babesteko. Esteka batzuk atxikita doaz, baliabide gehigarrien atalaren **2. eranskinean**, aterpeak egiteko adibide batzuk ikus ditzagun.

Itxierako biribila

Zer moduz?, ¿ongi pasatu al dute?, zer gustatu zaie gehien?

- **Ondoren ikastetxean egiteko jarduera:**

Intsektuendako aterpea ikastetxean paratzea

Taldeka toki egoki bat topatuko dute ikastetxean, intsektuendako aterpea kokatzeko. Tokia hegoaldera begira egonen da, euritik babestuta eta lurretik 30 eta 50 cm arteko altueran.

Materialak

- Bete beharreko fitxak.
- Lupa 1 talde bakoitzeko.
- Aitzur txiki 1 talde bakoitzeko.
- Aterpeetarako egitura 1 talde bakoitzeko: kartoizko edo egur fineko kutxak...
- Material betegarriak: lastoa, hostoak, adarrak, kartoia, kanaberak, harriak, pinaburuak...
- Babes-sarea, soka.
- Animalia lagungarrien argazkiak.

Jarduera osagarriak

1. jarduera: Taldeak sortzeko dinamika: (4 talde, x lagunek osatuak)

Rolak ikasleen artean banatuko ditugu. Horretarako, belarrira esanen diegu, gainerakoek entzun gabe, "baratzeko pertsonaia" hauetako bat: erlea, zizarea, uraza eta lorea. Ordena berean errepikatuko ditugu, talde bakoitzean pertsona kopuru bera dagoela bermatzeko.

Musika-instrumentu bat joko dugu eta musikaren erritmora mugituko dira, baratzeko iratxoak balira bezala. Musika etetean, nor bere pertsonaia antzetzuko du.

Bizpahiru aldiz errepikatuko dugu. Musika eteten den azken aldian, beren pertsonaia bera duten kideak bilatu behar dituzte. Hori horrela, erleak erleekin elkartuko dira, loreak loreekin..., eta 4 talde sortuko dira.

Talde bakoitzak egokitu zaien pertsonaiaren izena izanen du.

2. jarduera: Ekolokalizazioaren jolasa

Jolas hau giroa lasaitzeko proposatu daiteke, horren beharra ikusten badugu.

Bioaniztasunaz ari garela, saguzarreak ere aldeko ditugu baratzean, horietako batzuk intsektuez elikatzen baitira.

Jarduera hau egiteko, bi taldetan banatuko dugu ikastaldea. Erdiak saguzarrak izanen dira, eta beste erdiak, sitsak. Sitsak zirkunferentzia bat osatuko dute eta saguzarrak erdian jarriko dira.

Jolasean, saguzarrek sitsak "harrapatu" beharko dituzte, ekolokalizazioaz baliatuta. Bidenabar gogora ekartzen ahal dugu zertan datzan kontzeptu hori, eta komentatu nola orientatzen diren saguzarrak espazioan.

Horretarako, musu-mozorro bat, zapi bat edo tankerako zerbait emanen diegu, begiak estaltzeko. Sitsak lokalizatzeke, saguzarrek soinu bat eginen dute, "MUR-MUR"; horrek sitsekin topo egitean oihartzuna sortuko du eta sitsek "MAR-MAR" erantzunen dute.

Sitsak biribila irekitzen ahalko dute baina sakabanatu gabe. Pertsona laguntzaileek begiak estalita mugitzen diren ikasleei erreparatuko diete bereziki, istripurik gerta ez dadin.

Saguzarrek sitsak harrapatutakoan, rolak aldatu eta jolasa errepikatuko dugu.

Materialak

- Musu-mozorroak edo zapiak, gelako erdientzat.

Lurzoruko intsektuak / animaliak ezagutzea		
Nor naiz?	Marrazkia	Ni bezalako zenbat topatu dituzue?

2. eranskina: Intsektuendako aterpea egiteko adibideak

<https://www.kreivabox.com/ideas-diy-para-ninos/construir-un-hotel-de-insectos-con-ninos/>

<https://www.ideasverdes.es/hotel-de-insectos-casero/>

<https://www.youtube.com/watch?v=t8VwbT29-1g>

<https://www.youtube.com/watch?v=8IPSL5q16p4>